

Ordizian, **2013ko uztailaren 18an**, UDALBATZA elkartu da UDALETXEKO BILKURA-ARETOAN **OHIKO BILERA** egiteko. Bertan izan dira honako hauek:

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA: Igor Eguren Izagirre jauna.

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Belén Maiza Urrestarazu andrea	BILDU taldea
Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.	BILDU taldea
Juan Mari Gereñu Aldasoro jauna	BILDU taldea
Edurne Gutierrez Jauregi andrea	BILDU taldea
Imanol Iturrioz Lauzirika jauna	BILDU taldea
Iban Asenjo Garde jauna	BILDU taldea
Jose Miguel Santamaría Ezeiza jauna	EAJ taldea
Judith Otegi Lopez de Murillas andrea	EAJ taldea
Jose Ignacio Iturrioz Gotor jauna	EAJ taldea
Arantzazu Garin Garmendia andrea	EAJ taldea
Bittor Bolinaga Alzelai jauna	EAJ taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	PSE/EE (PSOE) taldea

BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK :

IDAZKARIA:

Martin Iparragirre Mujika jn.

KONTUHARTZAILEA:

Jose Luis Aramburu Otegi jauna

ITZULTZAILEA:

Izaskun Zubitur Iñarra andrea

BERTARATUTAKO BESTE BATZUK / SARTZE ETA IRTEERAK

EGUNEKO GAIAK

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

- 1.- 2013ko EKAINAREN 27KO Osoko Bilkurako akta onartzea.
- 2.- Hezkuntza Kalitatea Hobetzeko Lege Erreformari buruzko mozioa, BILDUK aurkeztutakoa.
- 3.- Giza Eskubideak, Irtenbidea, Bakea, Euskal Presoak Euskal Herrira, BILDUK aurkeztutakoa.
- 4.- Goierriko Ekimena S.A.ren 2012ko ekitaldiko memoria, balantzea eta galera eta irabazien kontuak onartzea.
- 5.- "UPABI-12" HIEko Udal Plangintzako Arau Subsidiarioetako elementuen aldaketa espediente behin-betiko izaeraz onartzea.
- 6.- Udalhitz lan-hitzarmena, laboral izaerako Udaleko langile, sozietate eta erakunde autonomoei aplikazioa eusteko, onartutako Dekretua berrestea.
- 7.- Ekonomia eta Finantza Plana onartzea Aurrekontu Egonkortasuna lortzeko
- 8.- 2013ko inbertsioak finantziatzeko maileguaren kontratazioa.

PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK:

GORABEHERAK

GALDE-ESKEAK

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 19.10ak.

AMAIERA ORDUA: 19.45ak.



Bilera hasi eta Alkate jaunak irakurri ditu gai zerrendako puntuak, eta 4. puntuari dagokionez, adierazi du memorian akats kontzeptual bat dagoela gaur egun Goiekik Udalaren lurra erosteko duen eskubideari buruzkoa (memorian jasotakoaren arabera Goiekik erosiko ez balu lurra, nolabait Udalak konpentsatu egin beharko lioke eta hori kontraesan bat da dagoen kontratuarekin) eta akats hori administrazio kontseilu batean horrela jaso zelako sortu da.

Hori horrela izanda, aho batez 4. Puntua eguneko gai zerrendatik ateratzea erabaki da.

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

1.- 2013ko ekainaren 27ko Osoko Bilkurako akta onartzea.

Proposamena

2013ko ekainaren 27ko Osoko Bilkurako akta onartzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Maiza and

Adierazi du euskarazko bertsioko 7. Orrian Asenjo jaunaren interbentzioko lerro batean “eraikin” jartzen duen lekuan “eraiki” jarri behar dela.

Alkate jn.

Adierazi du eskaerak eta galderak atalean “Oianguko” gaia zela eta, ziur asko mikrofonorik gabe hitz egin zuelako, interbentzio bat jaso gabe dagoela, eta eskatu du interbentzioaren edukia berreskuratu nolabait, eta aktan jasotzea; honela geratzen da:

“Oiangu Bizirik Plataformako” kide batek adierazi du gogoratzen duela, Oianguko epaiketa zela eta, plataformak 2.000,00 euro ordaindu behar zituzenez, Udal Osoko Bilkurara etorri eta zor hori barkatzeko eskatu zuela, eta Udal Osoko Bilkuraren erantzuna izan zela “Udalaren aurka joatea” ezin zela doan atera, eta azkenik plataformak 2.000,00 euro horiek ordaindu egin behar izan zituela, eta galdetzen du ea oraingo kasuan nork ordaindu behar dituen 138.000,00 euro.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ/PNV 5,PSE-EE (PSOE)1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Aipaturiko zuzenketekin akta aho batez onartu da.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 2. puntuaren berri eman du.

2.- Hezkuntza Kalitatea Hobetzeko Lege Erreformari buruzko mozioa, BILDUK aurkeztutakoa.

Proposamena

LOMCE-ri EZEZKOA EMAN ETA GURE HEZKUNTZA SISTEMA PROPIOA ERAIKITZEAREN ALDEKO MOZIOA

Euskal Herriko hezkuntza komunitateak eta herritarrek aspaldi ekin genion geure hezkuntza sistema propioaren eraikuntzari, herriz herri, ikastetxez ikastetxe geure herriaren beharrei erantzungo zien hezkuntza eredu berri baten bidean. Ez da makala izan norabide horretan emandako urratsak eta lortutako fruitua; jakin badakigun arren oraindik ere bide luzea dugula egiteko. Lan horrek era berean adostasun zabalak lortu ditu ikasle, irakasle, guraso zein herritarren artean eraikitzen ari garen eredu horren zutabeen baitan:

- Ikasle euskaldun eleanitzak sortuko dituen eredua.
- Euskal Herritik eta Euskal Herrirako sortutako eskola curriculum baten baitako eredua.
- Parte hartzean eta autonomian oinarrituko den eredua.
- Denontzako eskola eraikiko duen hezkuntza inklusiboan oinarrituriko eredua
- Guzti horiek bermatu eta bultzatuko dituen Hezkuntza Sistema Propio eta publiko baten beharra.

Bidean bildutako indarrak eta emandako pausoak gutxi izan ez diren moduan, ez dira makalak izan eredu hau oztopatzen saiatu diren hezkuntza lege, dekretu eta erreformak.

Egun, Espainiar Estatuko Ministroen Kontseiluak onartu berri duen Hezkuntza Kalitatearen Hobekuntzarako Lege Organikoaren aurrean aurkitzen gara, alegia, Wert ministroak bultzaturiko LOMCE-ren aurrean. Hautsak harrotu ditu hezkuntzaren erreforma berri honek hezkuntza komunitatearen eta oro har euskal herritarren artean. Hautsak harrotu, azken 30 urte pasatxotan 7. hezkuntza erreforma dugulako; hautsak harrotu 40 urteetako atzerapausoa suposatzen duelako hezkuntza esparruan; eta hautsak harrotu, gehien bat, euskal herriko ikasle, irakasle, guraso zein herritarren artean adostasun zabala lortu duten hezkuntza sistema berriaren zutabeen aurkako eraso zuzena suposatzen duelako.

LOMCE-k euskara hirugarren mailako hizkuntza bilakatuko du gaztelania eta ingelesa lehenetsiz ardatzeko ikasgai eta ikasgai espezifikoko gisa. Horrekin batera kolokan jarriko dugu orain arte eskolaren bidezko euskalduntzean egindako lana, euskalduntzen ez duten ereduak indartuz eta euskalduntzen duten ereduak mugak jarritz. Horrekin batera ezinezkoa egingo du ikasle guztiak euskaldunduak izateko duten eskubideen berme izango den hizkuntza marko berri baten ezartzea.

Curriculumari dagokionez, curriculumaren erabateko zentralizazioa ekarriko du, madrilek bere gain

hartuko duelarik ardatzeko ikasgaien zein ebaluazio irizpideen gaineko erabateko kontrola; alegia, PP-ren gobernuaren ideologiaren arabeko curriculuma ezarriko du. Kontrol ideologikorako tresna izanik, nekez egingo du aurrera hezkuntza komunitateak curriculum propio baten eraikuntzan.

Parte hartze eta autonomiari dagokionez, hezkuntza administrazioak erabateko kontrola izango du ikastetxeetako erabakiez gain zuzendaria bera ere berak hautatua izango delarik.

Denontzako eskolari dagokionez, argi dago lege honek proposatzen dituen ebaluazio sistema, eskola ibilbide zein finantziario moduek ikasleen arteko aukera ezberdintasunean oinarrituriko sailkapen goiztiarra ekarriko duela; denontzako eskola inklusiboa baino gutxi batzuentzako eskola segregatzailea bultzatuz.

Amaitzeko, honek guztiak, hezkuntza eta hizkuntza eskubideen erabateko urraketa suposatuko du, herritar ororen zein herri ororen hezkuntza eskubidearen urraketa hain zuzen ere. Edozein herritarrena, hezkuntza aukera berdintasunean bizitza duin eta autonomo bat izateko norbenakoaren garapen integral eta kritikoa bermatu beharrean; gutxi batzuentzat oinarrituriko hezkuntza segregatzaile eta elitista ekarriko duelako. Eta edozein herritarrena, herriaren biziraupen eta garapen ekonomiko, sozial eta kulturala bermatzeko munduko herri guztiek hezkuntza sistema propioa antolatu eta garatzeko duten eskubideari muzin egin eta hezkuntzaren birzentralizazioa suposatuko duelako.

Guzti hau kontuan harturik, honakoa onar dezan eskatzen diogu udal honetako osoko bilkurari:

- **ORDIZIAKO udalak Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoa baztertu egiten du, herri eta herritar gisa dagozkigun hezkuntza eskubideen urraketa garbia suposatuko baitu.**
- **Era berean, argi eta garbi adierazi nahi du hezkuntza lege berri hau aspaldididik euskal ikasle, irakasle, guraso zein herritarren eredu propio eta publiko baten eraikuntza helburu zabalduetako bidea zapuztera datorrela.**
- **Horrez gain, gurean adostasun zabala lortu duten hezkuntza sistema propioaren zutabeen aldeko konpromisoa berresten dugu; alegia, hezkuntza sistema hizkuntza eta edukiz euskalduna, parte hartzailea, inklusiboa, propioa eta pertsona guztien aukera berdintasuna bermatuko duena.**
- **Honen aurrean dei egin nahi diegu hezkuntza komunitate zein herritarrei lege honen aurrean euren desadostasuna adierazi eta geure eredu propioaren eraikuntzan indarrak biderka ditzaten.**
- **Ildo beretik, dei egiten diegu Gasteizko zein Iruñeako legebiltzarrei lege hau gurean aplikatu ez eta Hezkuntza Sistema Propioaren eraikuntzan urratsak eman ditzaten.**

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Maiza and:

Gobernu aldaketa dagoen bakoitzeko Hezkuntzarekiko dagoen fijasioa aipatu du, beti interesak daudela tarteko; jarraitu du esanez ez garelako kapaz kontsentsu zabal bat lortzeko modu iraunkorrean, eta

azpimarratu du atzo Espainiako Parlamentuan oposizioko hainbat alderdik sinatu zutela Lege honen aurkako akordio bat, eta bat datozela sinatutako akordioarekin; amaitzeko aipatu du zer den mozioarekin Udal Osoko Bilkurari onartzea eskatzen zaiona, eta bukatu du esanez pozgarria dela Gasteizko gobernuak egindako azalpen publikoa non garbi azaldu duen gure hezkuntza sistema propioa urratzen badu, Gasteizek ere uko egingo diola Legeari.

Santamaria Jn.

Adierazi du pena dela mozio hau Bildu taldearen izenean bakarrik etorri izana, pentsatzen zuen aukera izango zela elkartu eta mozio hau adosteko, baina egindako Plenoko Gai Batzordean ez zela adostasuna lortzeko inongo aipamenik egin; alderdi bezala alde bozkatuko dutela Maiza andreak esandakoarekin ados daudelako, baina azpimarratu nahi duela batetik eskumeneren kontua, gure hezkuntza errealitatea ez du batere errespetatzen, bestetik dagoeneko gure sistemak gainditzen ditu Lege horrek markatzen dituen helburuak eta ez du uzten hobetzeko inongo aukerarik.

Dubreuil Jn.

Adierazi du erretiratu egin zuela gai honi buruz aurkeztu zuen mozioa, eta PP alderdiaren “política de hechos consumados” baten aurrean gaudela, Legea egiteko garaian ez dutela errespetatu ez hezkuntza komunitatea, ez ikasle, irakasle eta guraso elkarleen iritziak, onartu dela azkenean inori kasurik egin gabe; mozioaren hainbat aspektutan ados daudela, pentsatzen duela Lege hau “erloju lehegailua dela” sistema publikoarentzat, hezkuntza pribatuari atea irekitzen diola lege honek, hezkuntzara iristeko gaiari dagokionez, eta azkenik desberdintasuna bultzatzen duela, eta PPK ez duela iritzi horiek entzun eta kontuan izan; estatuko legea izanda ez daudela ados Bilduk bere mozioan erabilitako arrazoiketa politiko-filosofiko-ideologikoarekin eta horregatik abstenitu egingo dela.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (BILDU 7, EAJ 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 1(PSE-EE (PSOE)1)

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hirugarren puntuaren berri eman du:

Intsausti andreak irakurri du.

3.- Giza Eskubideak, Irtenbidea, Bakea, Euskal Presoak Euskal Herrira, BILDUK aurkeztutakoa.

Proposamena

Giza eskubideak. Irtenbidea. Bakea. Euskal presoak Euskal Herrira

Ordiziako udalak euskal presoen eskubideen aldeko hainbat konpromiso hartuko ditu mozio honen bidez.

Aurreko urtarrilaren 12an, euskal presoen eskubideen alde inoiz egin den manifestaziorik jendetsuena egin zen Bilboko kaleetan. Zalantza gabe, Euskal Herrian egin den manifestazio jendetsuenetakoa izan zen.

Manifestazio haren leloak argi eta garbi laburtzen du euskal gehiengo politiko eta sozialaren aldarria eta exijentzia: **Giza eskubideak. Konponbidea. Bakea. Euskal presoak Euskal Herrira.**

Bilboko manifestazioa herri interpelazio ikaragarria izan zen, batez ere:

- Lehenik eta behin, Espainia eta Frantziako gobernuak interpelatu zituzten manifestazio hartan bildutakoek. Gatazkaren konponbiderako aukeraren aurrean ezer egiten ari ez direlako, eta ezer ez egitearen ondorioz, euskal presoek eta euren senideen eskubideak urratzen jarraitzen dutelako, etengabe.
- Baina era berean, sindikatu, politika eta gizarte eragileak ere interpelatuak izan ginen: euskal jendarteak konpromisoak eskatzen dizkigu guztioi, baita Ordiziako udal ordezkariok ere, denon artean gatazkaren konponbiderako eta bakearen eraikuntzarako oinarriak jar ditzagun. Eta hasteko, ezinbesteko oinarri dugu presoak Euskal Herrian euren eskubide guztien jabe izatea.

Ordiziako udalak aldarrikapen horiek lehentasunezkoak ditu: ordiziar gehienek iritziarekin bat egiten dutelako, batetik; eta guztiz aldarrikapen bidezkoak direlako, bestetik.

Presoen eskubideen inguruko adostasuna egon badago euskal gizartean, eta baita, jakina, Ordiziakoan ere. Euskaldunok jakin baitakigu presoek eskubideak betetzen ez diren bitartean, prozesuak zama jasanezina izango duela aurrera egiteko.

Presoen sakabanaketa etetea, euren eskubideak betetzea eta estatu espainiar eta frantziarra urratsak ematera bultzatu nahi ditugulako, Ordiziako udalbatzak euskal presoek eskubideen aldeko hainbat konpromiso hartzea erabaki du.

✧ **Irailen herriko presoek euren inguruko udal dosierra osatzea eta sei hilabetetik behin berritzea.**

✧ **Hasierako dosierra Instituciones Penitenciariasera, Audientzia Nazionaleko Espetxe Zaintzako Epaileari, Justizia Ministerioetara eta Strasburgoko Giza Eskubideen Batzordeari igortzea bertan jasotzen diren eskubide-urraketak ekiditeko eskatzeko.**

- ✧ **Herriko presoekin bisita erronda ofizialari ekitea.**
- ✧ **Herriko presoeri udal erabakiak eta udalak argitaratu edo ateratako materialaren ale bana bidaltzea.**
- ✧ **Hilabeteko azken ostiraletan Herrirak deitutako elkarretaratzeetan modu ofizialean parte hartzea. Eta urriko azken ostiraleko ekitaldia, hain zuzen, udalak berak antolatzea eta udalak berak herritar guztiei bertan parte hartzera deitzea. (Azken hau Ordiziako Herrira taldearen eskaera izan da).**
- ✧ **Udaleko ordezkari gisa parte hartzen dugun ekitaldi guztietan presoek eskubideen defentsa adierazten duen txartela eramatea.**
- ✧ **Hiru hilabetez behin herriko presoek senideekin bilerak egitea, egoeraren berri zuzena izateko.**
- ✧ **Euskal Herriatik kanpo dauden presoeri bisitak egiteko diru-laguntzak eman ahal izateko araudia onartzea.**

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Santamaria jn.

Adierazi du nahiz eta aurrekariekin nahiko ados egon, ez daudela ados proposatzen diren ekintzekin, berretsi du bere alderdia betidanik egon dela giza eskubideen alde, eta alde batetik nahiz beste aldetik egindako bortxakeriak gaitzetsi egin dituztela; ekintza plan honekin besteen errealitatea ez dela ikusten, eta bukatzeko esaten du hitz batekin geratu dela, "oinarriak" jarri, eta iruditzen zaiola mozioan jasotzen den ekintza planarekin ez direla gizarte honek elkarbizitzarako behar dituen "oinarriak" jartzen.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 7)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 6(EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du,:

5.-“UPABI-12” HIEko Udal Plangintzako Arau Subsidiarioetako elementuen aldaketa espedientea behin-betiko izaeraz onartzea.

Proposamena

HONAKO HAU IKUSITA:

Udal Osoko Bilkurak, 2012ko azaroaren 29an eginiko bileran, besteak beste erabaki hau onartu zuela:

- 1.- 2012ko urrian aurkeztutako dokumentuan oinarrituta eta txosten teknikoan jasota dauden hasierako onarpenari egindako aldaketak kontuan izanda “UPABI-12” HIEko udal Plangintzako Arau Subsidiarioetako elementuen aldaketa onartzea behin-behinean.
- 2.- Espedientea bidaltzea EHLBri aldez aurreko txosten loteslea egin dezan.
- 3.- Alkatetzari akordio hauek sustatzeko beharrezkoak diren xedapenak egiteko eskumena ematea.

KONTUAN HARTUTA:

Euskal Herriko Lurralde Antolaketaren Batzordeko Gipuzkoako Hirigintza Planeamenduko sailak,, ekainaren 20ko 3/2012 zenbakidun batzarrean 2/2006ko Legearen 91. Artikuluan aurreikusitako txostena egin zuela, Ordiziako Udalak aurkeztutako espedienteari buruz,(aldekoa da baldintza batzuekin).

Gai honi buruz, Udal arkitektoak egindako aldeko txostena.

Gai honi buruz, Udal idazkariak 2013-07-12ko datan egindako aldeko txostena.

ERABAKI PROIEKTUA:

BAKARRA: “UPABI-12” HIEko udal Plangintzako Arau Subsidiarioetako elementuen aldaketa onartzea behin-betiko izaeraz, Euskal Herriko Lurralde Antolaketaren Batzordeko Gipuzkoako Hirigintza Planeamenduko sailak jarritako baldintzak kontuan hartuz.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: erabatekoa.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn.

Adierazi du hainbat alditan aipatu dela espediente hau, eta gaur azkenik behin-betiko onarpena emango zaiola; azkenik jarritako baldintzei buruzko azalpen labur bat eman du.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)
Kontrako botoak: 0
Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

6.- Udalhitz lan-hitzarmena, laboral izaerako Udaleko langile, sozietate eta erakunde autonomoei aplikazioa eusteko, onartutako Dekretua berrestea.

Proposamena

UDALHITZ/ 0747 . DEKRETUA

HONAKO HAU IKUSITA:

2008ko irailaren 22an, Euskal Erakunde Publikoetako Langileen Lan-baldintzak Arautzen dituen Akordioa sinatu zen 2008-2010 urteetarako, eta 2008ko abenduaren 2ko EHAA n argitaratu zen, eta gure erakundeak 2008-11-27ko Udal Osoko Bilkuraren akordio baten bitartez, adhesioa sinatu zuen.

Aipatutako Akordioko 4. artikuluan xedatutakoaren arabera, Erakundeko gobernu-organo eskumendunak Akordioa berariaz eta modu formalean onartu eta hurrengo hilabeteko lehenengo egunetik aurrera sartuko da indarrean, 2010eko abenduaren 31ra arte, eta aldeetako edozeinek aipatutako indarraldia salatu ahal izango du data horretatik aurrera. Era berean, agindu horrek adierazten duenez, aldeetako edozeinek Akordioa salatzen badu, indarraldiak bere horretan jarraituko du juridikoki aplikagarriak zaizkion aurreikuspen guztietan.

Akordioaren gehieneko indarraldiaren epea iraungitzen denean, eta behin indarraldia salatuta, Akordioaren aplikazioak bere horretan jarraitu du data horretara arte, juridikoki aplikagarriak ziren arlo guztietan, ulertu baita klausula arautzaileak erabat aplikagarriak direla; eta hori, marko erregulatzaillearen negoziatorako kontaktuak hasi izanari kalterik egin gabe, horrek oraindik emaitzarik sortu ez badu ere.

Hala ere, lan merkatuaren erreformarako premiazko neurriei buruzko uztailaren 6ko 3/2012 Legea indarrean sartu izanak aldarazi egin du Langileen Estatutuko hitzarmen kolektiboetako ultrajardueraren idazketa erregulatzaillea. Horrela, hitzarmen kolektiboaren indarraldia, behin salatuta eta itundutako iraupena amaituta, hitzarmenean bertan ezarritako terminoetan gauzatuko dela esan ohi den arren, finkatu dena hauxe da: hitzarmen kolektiboa salatu eta urtebetera oraindik ez bada hitzarmen berririk adostu, lehenengoak indarraldia galduko duela eta, halakorik balego, dagokion esparru handiagoko hitzarmen kolektiboa aplikatuko dela, bestelako itunik adosten ez baldin bada. Aipatutako legezko araua indarrean sartzean dagoeneko salatu diren hitzarmenen kasuan, eta

Laugarren Xedapen Iragankorrean xedatutakoarekin bat etorritz, urtebeteko epe hori 2013ko uztailearen 8an amaituko da.

Adierazitako guztia kontuan hartuta, itun bat formalizatzea da alde sinatzaileen borondatea, Euskal Erakunde Publikoetako Langileen Lan-baldintzak Arautzen dituen 2008-2010 urteetarako Akordioko xedapenak oso-osorik aplikatu ahal izateko eragindako udal langile guztiei, legez aplikagarria den orotan; eta hori, datozen urteotarako beste akordio erregulatzailer bat lortu bitartean. Modu horretan, saihestu nahi dena da esparru handiagoko beste arau batek ardaztea Euskal Tokiko Erakundeetako langileen lan-harremanak denbora-tarte horretan.

Aurreko guztia ikusita, eta martxoaren 24ko 1/1995 LED bidez onartutako Langileen Estatutuko Testu Bategineko 86.3 artikulua ezarritako aurreikuspenarekin,,

HONAKO HAU ERABAKI DUT:

Lehena.- Idazketa berria ematea Euskal Tokiko Erakundeetako **LANGILEEN** lan-baldintzak Arautzen dituen 2008-2010 urteetarako Akordioko 4.4 artikuluari; horrela, aurreko 4.4 artikulua ordez, honela geratuko da idatzita:

- 4.4 art.: “Langileen Estatutuko 86.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, eta lan merkatuaren erreformarako premiazko neurriei buruzko uztailearen 6ko 3/2012 Legearen idazketak sortu duen aldaketaren ostean, adostu da, Akordio berria lortzen ez den bitartean, oraingoak bere indarraldiari eutsiko diola, aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailearen 13ko 20/2012 ELDk xedatutakoari egokituta, dena pertsonaleko ordezkaritzarekin negoziatu eta adostutakoaren arabera.

Bigarrena.- Ordiziako Udaleko eta bere elkarte eta erakunde autonomoen langileen lan-baldintzak arautzen dituen akordioaren indarraldiari ituna (Udalhitz 2008-2010) langileen ordezkariekin batera sinatzea.

Hirugarrena.- Dekretu hau hurrengo Udal Osoko Bilkuran berrestea.

- Dekretu hau dagokionari jakinaraztea.

- Igor Eguren Izagirre Alkateak agindu eta sinatu du, Ordizian, 2013ko uztailearen 12an hori guztia, nik, Ordiziako Idazkariak, ziurtatu dut.

Ondoren aipatzen den bezala, mozioa gai-zerrendatik kendu da.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate in.

Adierazi du Dekretua Udal Osoko Bilkurara ekartzen dela berrestera, eta lan merkatuaren erreformarako premiazko neurriei buruzko uztailaren 6ko 3/2012 Legea indarrean sartu ondoren, erabaki hau 2013ko uztailaren 7a baino lehen hartu behar izan dela Udalhitz lan-hitzarmena, laboral izaerako Udaleko langile, sozietate eta erakunde autonomoei aplikatzen jarraitzeko.

Bozketa


Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 7)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 6 (PSE-EE (PSOE)1, EAJ 5)

Alkate jaunak ondorioz, proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

7.- Ekonomia eta Finantza Plana onartzea Aurrekontu Egonkortasuna lortzeko.

Proposamena

2013ko ekainaren 26ko 683 dekretuaren bitartez onartu zen 6. kreditu transferentzia (3.000 eurokoa) eta 2013ko ekainaren 27ko Udaltzaban bi kreditu aldaketak onartu ziren: bat, kreditu transferentzien 7. espedientea (49.078,43 eurokoa) eta bigarrena, kreditu gehigarrien 5. espedientea (638.000 eurokoa).

Kreditu aldaketa azken honek eragina handia izango du datorren urteko zama finantzarioan eta beharrezkoa izan da 2014-2016ko Aurrekontuaren Eszenarioko baldintza guztiak berriro aztertzea.

Lan horren ondorioz, epealdi horretarako Aurrekontuaren oreka berreskuratzen da eta Estabilitate eta Iraungarritasun Legearen baldintzak bete.

AKORDIO PROPOSAMENA

2013-6-27ko Plenoan onartutako kreditu aldaketak ekarri duten desorekaren ondoriozko Plan Ekonomiko-Finantzariora onartu.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Kontuhartzaile jn:

Adierazi du gehienbat 2013-06-27ko Plenoan onartutako kreditu aldaketak (pabilioiaren erosketa eta Elkargi abalaren itzulketa) eragin handia izango duela datorren urteko zama finantziarioan eta beharrezkoa izan dela 2014-2016ko Aurrekontuaren Eszenarioko baldintza guztiak berriro aztertzea.

Aurkezten den Plan berriarekin, Aurrekontuaren oreka berreskuratu eta Estabilitate eta Iraungarritasun Legearen baldintzak betetzen dira, baina oso modu ahulean, inbertsioetarako oso baliabide gutxirekin.

Jarraian, bere 2013ko uztailaren 5eko txostenean jasotakoaren arabera, pendiente daudenak aipatu ditu:

- 1) 2012ko abenduan ordaindu gabe utzitako "extra" halako batean ordaindu ahal izateko, poltsa bat sortu beharra genuen. 2012ko Aurrekontuaren Likidazioaren altxor gerakinarekin ez zen posible izan poltsa hori sortzea eta 2014-2016ko prebisioetan 2016ko Aurrekontura arte ez da aukerarik ikusten poltsa hori sortzen hasteko. 2015erako sortu nahi izanez gero (urte honetan ikusten zen poltsa horren erabilpena Pentsio Plan moduan edo beste modu batean) esfortzu berezi bat egin beharko litzateke.
- 2) 2013an egin den modu berean, 2014ko eta 2015eko Aurrekontuetan aurreikusten da Balorazioaren 2011ko atzerapenen heren bana. Lehen egindako txosten batetan esan nuen bezala, berriz errepikatuko dut atzerapen horien ordainketa ez dudala legezkoa ikusten, egindako kalkuluak, nire ustez, gaizki eginda daudelako. Neurri horretan, Udalak hori ordaintzerakoan, bere baliabideak gaizki erabiltzen ari da.
- 3) Krisi egoera honetan gerta daitekeela sarreretako prebisioak ez betetzea eta sarrera eta gastu arrunten arteko aldea hain txikia izanik komeniko zela gastuetan oso modu zorrotzean jokatzeari. Gastuetako 2. Kapituluaren KPI-1eko prebisioa dago eginda, eta hori lortzea ez da hain erraza; hitzarmenak berrituz oso kontuan hartu behar da prebisio hori, prezioak gutxitzen edo eskaintza lanak murriztuz. Hainbat hitzarmenetan orduko prezio haundiegiak ordaintzen ari gara eta beste kasu batzuetan egiten diren lanek oso jasotzaile gutxi dauzkate, pertsona bakoitzaren kostua oso handia gertatzen delarik.

Dubreuil jn.

Kontuhartzailearen txostenaren 2. Puntuari dagokionez, esan du jakin nahi lukeela ea legezkoa den ala ez.

Kontuhartzaile jn.

Erantzuten dio, gaia hau aztertu zenean esan zela, gobernuak soldaten murrizketa onartu zuenean balorazioa aplikatu gabe zegoela, eta murrizketa aplikatu zela aurreko soldaten gainean, eta gero balorazio berria aplikatu zenean aplikatu zela besterik gabe; iruditzen zaio onartutako balorazioa aurreko soldatak ordezkatu behar zituela eta gero, gobernuaren murrizketa aplikatu. Gauzak horrela egin ez direnez, bere ustez, egindakoa ilegala da.

Alkate jn.

Kontuhartzaileari erantzun dio esandakoa ez dela erabat zuzena, gai honetaz ehundaka aldiz hitz egin dela, nahiz eta ez beti era egokian aztertu, bitxia iruditzen zaio azken urte honetan gutxienez 3 Osoko Bilkuretan gai hau eztabaidatu eta argitu gabe utzi izana. %5eko beherapena ez zela Legeak aginduta bezala egin, esan du, baizik eta Eudelek proposatutakoaren arabera. Kontuhartzailearekin dagoen desadostasuna honako hau dela: kontuhartzaileak esaten du balorazio berria aplikatzeko oinarritzko ordainsaria 2011ko urtarrilekoa izan beharko zela, beherapena kontuan hartuta, eta ez inolaz ere 2010eko urtarrilaren 1eko oinarritzko ordainsaria aintzat hartuta, kontuhartzailearen ustetan aplikatu den bezala; Alkatearen esanetan azkenik ordaindu zena eta hori kontrastatuta dago balorazio berria aplikatzeko kalkuloak egin zituen teknikariarekin, bien tarteko formula bat izan da, 2011ko oinarritzko ordainsaria kontuan hartuta, gai tekniko bat da, Udaleko nominak egiteko programak ez zituen 2010eko oinarriak onartzen baizik eta azkeneko Estaduko Aurrekontu Orokorrekoak; jarraitu du esanez hau dena Balorazio Batzordean tratatu zela, eta adostasun batera iritsi zela ordainketei buruz, eta azkenean ordaindu dena kontuhartzaileak proposatutakoa eta Pertsonaleko Juntarekin adostutako tarteko zerbait izan dela.

Kontuhartzaile jn.

Lehendabizi esan beharra dago %5eko murrizketa ez zela aplikatu Eudelek ezarri zituelako beste murrizketa batzuk. Baina balorazioaren gaia guri dagokigu bakarrik, garrantzitsuena da balorazio berriak 2010eko soldatak ordezkatzeko zituela, eta hori da garrantzitsuena eta beste gauza batzuk garrantzi txikiagoa daukate.

Alkate jn.

Gaia argitzeko konpromisoa hartzen duela esan du berriro atera ez dadin.

Dubreuil jn.

Hori horrela izango da irtenbide bat ematen baldin bazaio.

Ondorioz, proposamena aztertzeke geratu da.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

8.- 2013ko inbertsioak finantziatzeko maileguaren kontratazioa.

Proposamena

Mailegua kontratatzeko Ordizian bulegoa duten Entitate guztiei eskatu zitzaizen bere eskeintza egitea.

Laboral Kutxa eta Santander Banketxeak ez dute bere eskeintza egin, modu egokian egitea ez zedukatelako.

Beste guztiak aurkeztu dituzte bere eskeintzak eta hauek dira:

Kutxa	Urteko euriborra+4,50
Rural Kutxa	Hiruhilabeteko euriborra+3,90
La Caixa	Hiruhilabeteko euriborra+4
Sabadell	Hiruhilabeteko euriborra+3,75
BBVA	Hiruhilabeteko euriborra+4,5

Eskeintza hoberena Sabadell Banketxearena da, baina nahiz eta hemengo Zuzendaritzak garbi eduki, Barcelonatik jaso behar dute azken erabakia.

Hau guztia aztertuta,

AKORDIO PROPOSAMENA

Sabadell Banketxearekin 1.130.272 euroko mailegua hitzartu, beti ere Barzelonatik egindako eskeintzari oneritzia ematen bazaio.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Kontuhartzailea:

Adierazi du azkenean 1.130.272,00 euroko mailegua eskatuko dela, eta mailegua kontratatzeko Ordizian bulegoa duten Entitate guztiei eskatu zitzaizela; Laboral-Kutxa eta Santander banketxeak ez dute eskaintzarik aurkeztu, modu egokian aurkezterik ez zeukatelako; gainerako entitate guztiak aurkeztu dituzte eskaintzak, eta honako hauek dira:

Kutxa.....	Urteko euriborra+4,50
Rural Kutxa.....	Hiruhilabeteko euriborra+3,90
La Caixa.....	Hiruhilabeteko euriborra+4
Sabadell.....	Hiruhilabeteko euriborra+3,75
BBVA.....	Hiruhilabeteko euriborra+4,5

Bukatu du esanez, eskaintza onena Sabadell banketxearena dela, baina nahiz eta hemengo zuzendaritzak garbi eduki, zentraletik jaso behar dutela azken erabakia, eta azken erabaki hori ez da oraindik iritsi.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 7,)

Kontrako botoak:0

Abstentzioa: 6 (EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Beraz Alkateak aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuaren berri eman du:

9.- Eskaerak eta galderak

Alkate jaunak adierazi du dagoeneko jendea konturatuko zela Joseba Rezola-bonberia pareko tramaoa joan den astean hesitu zela, eta hori dela Skate parkera pasarela jartzeko lanak hasi direlako; hasieran zundaketa lanak egingo dira eta asmoa da pasarela abuztuko 2. astean jartzea. Obra hauek direla eta, trafiko arazoak ere eragingo duenez, aldeztu behar diren abisoak pasatuko dira.



Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak Osoko Bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta nik, idazkariak egiaztatzen dut.